

Atzerrian jaiotako egoiliarak 115.000 arte hazi dira


Euskal AEtik kanpo jaiotako en portzentajeak berdin dirau, baina jatorria aldatzen da

Azken 5 urteetan atzerrian jaiotako pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora, 50.000tik 115.000ra, Eustaten datuen arabera. 601.541 egoiliar ez dira Euskal AEn jaiotako; alegia, biztanleriaren %28,2.

Halere, hauxe nabarmendu behar da: Euskal AEtik kanpo jaiotako en ehunekoak egonkor dirau azken hamar urteetan, baina pertsona horien jatorria aldatu egin da. 1986 erreferentzia hartuta, beste erkidegoetan jaiotakoak -75.365 dira eta +95.765 atzerrian munduratu zirenak.

Gaztela eta Leon (%9,6), Extremadura (%2,4) eta Galizia (%1,7) dira Euskal AEn han jaiotako en presentziarik handiena duten erkidegoak. Atzerrian jaiotako en artean bost kontinenteetako 161 lurraldetako pertsonak daude; hauen arteko kolektiborik ugariena hegoamerikarrak dira, %42.

1. grafikoa. 2001etik 2006ra bitartean udalerriz aldatu den biztanleria, adin eta sexuaren arabera. Kopurua



Iturria: EUSTAT


Biztanleriaren %45 inguru jaiotako udalerrian bizi da

Euskal AEko biztanleriaren %45 jaiotako udalerrian bizi da (sedentarioak); %23,5 beste erkidego batetik edo atzeritik etorri da, eta %32 Euskal AEko beste udalerrira batera mugitzen da noizbait bizitzan (barne migratzaileak).

25-35 urteen artean aldatzen da jenderik gehien udalerriz, Euskal AEn barruan, baina gizonen artean aldaketa-garaia gehiago atzeratzen da, 40 urteak arte.

Euskal AEko mugikortasunak badu alderik hiru herrialdeetan. Bizkaiak biztanleria sedentario gutxiago du (%42,9); barne-migratzaileak %33,7 dira eta Euskal AEtik kanpo jaiotakoak %23,4. Gipuzkoan biztanleria sedentarioagoa da (%47,7) eta Araba da Euskal AEtik kanpo jaiotako pertsona gehien (%32,2) diren eta barne-migrazio gutxien (%24,2) egiten diren herrialdea.

2. grafikoa.- Biztanleria migrazioarekiko erlazioaren arabera, eskualdeka 2006 (%)



Iturria: EUSTAT

Eskualdeka, Markina-Ondarroa (%57,4) eta Urola-Kosta (%53,1) dira sedentariorik gehien dituztenak. Etorrin gehien dituztenak Arabako Errioxa (%40,1) eta Arabako Lautada (%34,5) dira.

Zenbait eskualdetan Euskal AEko beste udalerrietatik etorritakoen kopurua erdiaren gainetik dago: Plentzia-Mungian (%57,3) gaurko 50.628 biztanleetatik 28.989; 16.390 sedentarioak dira eta 5.263 etorkinak. Gauza bera gertatzen da Arabako hiru eskualdetan: Gorbeia inguruak (%51,1), Kantauri arabarra (%47,6) eta Arabako ibarrek (%39,4).

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Vázquez

+Tlf:+34-945-01 75 34 Faxe:+34-945-01 75 01

Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es